

Uxue Perez Mujika

A maila • 2 saria

Ni, Uxue. 17 urte. Literatura, mendia, lagunak, zinema, umorea, parranda... ditut maite. Beasaindarra. Kolore gustokoena, berdea. Idaztera bultzatzen nauena? Orri zuria eta arkatza. Zuria beldurrez, istorioz, zaporez estaltzen dudana era gustoko izango duzuelakoan...

Mila esker,
Uxue



GESALAGA

Zeinen erraz igaro dezakeen burni zorrotzak azala.

Eguneroko bidea egiten zebilen Joxe, goizeko ordu txikitan Basozabaleko etxe eta baserri guztiak banan-banan igaroz, seiscientos hori, herdoil eta zaratsua hartuta, maldan gora eta behera, eguzkilorez apaindutako egurrezko ateetan ogi-biribilak utziz. Betiko jardunbideari jarraituz kortesiazko elkarrizketa izaten zuen erosleekin, betiko prezioan ordaina lortzen zuelarik.

Ondotik igarotzen zitzaion erreka gaziagatik jarri zioten baserriari Gesalaga. Baserri hotz eta bakan hartan, tabako eta ekonomatoko alkohol merkea usain zitezkeen. Errezelo eta inbidiaz betetako giroak su baxuak igortzen zuen bero goxoarekin egiten zuen talka. Martina eta Nieves bizi ziren bertan. Ahizpa bikiak ziren.

Amak, ume goiztiarrak izan zituen; zazpi hilabete zeramaten arren amaren sabelean, uzkurdura gogorrak izan zituen hiltzeko egun elurtsu hartan. Gesalaga baserria urrun zegoen herritik eta emaginak ez zuen astirik izan hara heltzeko, umeak jaio baino lehen. Aitak ahal zuena egin zuen ama laguntzeko, baina amak umeen negarrak entzun orduko, bere bi neskattikiak ongi jaio zirela igartzean, begiak itxi zituen betazalen haztak gaindituta, betiko. Aita geratu zen bikiek, papelerako lanak eta baserri batek zekarten zama bizkarrean harturik.

Umeak giro xume eta lanpetu batean hezi ziren, goizeko bostetan esnatuz aitari baserriko lanetan laguntzeko. "Colegioa" zen haien arnasmune bakarra, Nieves irakurtzen hasi orduko liluratuta geratu zen letra txiki horiek eskaintzen zioten askatasunaz. Martinak, aldiz, ez zuen Nievesek bezain azkar irakurtzea lortzen eta kostatu egiten zitzaion irakaspenak jarraitzea. Eskola gogoko izatearen arrazoi bakarra geldirik zegoen eguneko une bakanetakoa zelako zen. Maistrak, Nieves bere jarrera on eta azkartasunagatik laudotzen zuen bitartean, Martina

astakilo eta geldotzat zuen, beti gutxiesten zuelarik. Orduan hasi ziren bien arteko liskarrak nabarmentzen.

Etxe hartako ortuetan ez zen landare bat bera ere hazten, sasia, asuna eta dena gutxinaka-gutxinaka jaten zihoan huntza, soilik. Jan zituen algarak, jolasak eta irribarreak. Zoriontasun zantzu txikiena ere hostoz estaliz

Urteak igaro ahala, zama aita gainditzten hasi zen; garai txarrak ziren eta ez zen erraza alabentzat zapata berriak edo eguneroko ogia mahaira eramatea. Lan kargaren ondorioz aita ahitzen ari zen eta urteak aurrera egin zuten, haren indarra xurgatuz.

Joxek Martina espero zuen atean, baina ez zen inor ageri. Betiko ordua zenez harritu egin zen. Martinarekin solasaldia kortesiazkoa baino gehiagokoa izaten zen. Gustuko zuen berarekin berriketan aritzea, nahiz eta soberan jakin emakume hartaz herri guztiak zuen iritzia.

Bikiek erlazio berezia dutela esan ohi da, lotura moduko bat. Anai-arrebena baino estuagoa, biak batera egon baitira sortzeko prozesuan ere. Jaio zarelarik horren denbora tarte motzak ezdeusa dirudien arren, bederatzi hilabetek aldaketa sakonak nabarmen ditzake haurdunaldian. Zazpi hilabete, ordea, ez ziren nahikoa izan Martina eta Nieves behar bezala uztartzeko.

Bi ahizpak nerabegarora iritsi zirenean, Martina, Nieves baino lehenago garatu zen. Denek zuten begiko, lagunartean maitatuena izanik. Iganderoko berbenan mutil guztiek nahi zuten berarekin agarratuan dantzatu eta pasodoble zein baltsetarako inguratzen ziren harengana. Nieves, ordea, bakarrik zegoen, literaturan bilatzen zuen sosegua, baina ezin zuen jasan bere ahizparen itzalean horrela egotea. Inbidiak barrutik jaten zuen eta gorrotoa handiagotzen hasi zen garai hartan.

17 urte zituztelarik, aita ezinaren ezinez hil zen. Bi ahizpek aurrera jarraitu ahal izateko ogibide bat bilatu beharra izan zuten. Nievesek, colegioa bukatutakoan ikasten jarraitu zuenez, makinaz idazten oso abila zen. Beraz, aitaren lantokian hartu zuten lan hitzarmenak eta idazkari lanak egin zitzaion. Martinari gehiago kostatu zitzaion ordea. Ez zuen ofiziorik ikasi eta ez zen langile trebea. Lanpostuak urriak ziren eta berak ere ez zuen lan egiteko gogo handirik. Hortaz, ahizpa lanean zegoen bitartean baserriaz arduratuko zela adostu zuten.

Etxe hartan ez zegoen konponezina ez zirudien ezer, aitaren denbora faltak eta alaben lan egiteko gogo eskasak baserriaren itxura ere zapuatu baitzuen.

Martinak lehen egunetan bere egitekoa bete zuen erratza pasaz, hautsa kenduz eta komunak buru-belarri garbituz. Egunek aurrera egin ahala, ordea, bere gogoberotasuna lasaitzen joan zen eta erratza eta bazkaria egitearekin konformatzen hasi zen. Nieves nekatuta iristen zenez ez zien gehiegi erreparatzen ahizparen egitekoiei.

Hala ere, egun batean Martinari, aspertuta zegoelarik, ganbara mihatzea otu zitzaion. Han gauza piloa zegoen, eta anabasa horretan aurkitu zuen bere eguneroko denbora pasa. Hautsez betetako kaxak eta kaxak zeuden, denak tramankuluz beteak. Bi asteren ondoren ganbara goitik behera miatua zuen.

PROSA

Egiteko haietan zebilela jakinda Nievesek bertan zeuden gauzen berri ez zuela, bertako gauzarik baliotsuena saltzea otu zitzaion askatasun ekonomikoaren gomuta buruan zuelarik; aitarena izandako bolaluma bat. Watermans markakoa zen, urdin iluna, urre koloreko xehetasun eta forma zoragarritziz elkatutako plumin batekin. Ordurako, Martina nazkatuta zegoen dirua behar izanez gero, Nievesi eskatzeaz, beraz ez zitzaion horren ideia txarra irudit.

Etzeko arrakalak handiagotuz hasi ziren. Martinak bolalumagatik lortutako diruarekin tabernan igaro zituen egunak eta egunak. Ahizpa lanean zegoen bitartean, aspaldi gozatu gabeko dibertsioa dastatu zuen Martinak.

Behin ordea, zerua iluntzen hasia zelarik Nieves etxera iritsi eta ez zuen afaririk aurkitu sukaldean, Martina ere ez zegoen eta kezkatzen hasia zela, pauso nahasi batzuk entzun zituen sarreratik gertu. Ateko giltzarrapoan norbait giltza sartu nahian zebilen. Bat-batean botaka soinua aditu zuen. Atea zabaltzeko eta Martina aurkitu zuen, etxe atarian makurtuta gonbitoka, mozkor.

Joxek bazekien ez zitzaiola Martina komeni, bera baino zaharragoa zen, herriko atsoek mutilzale anker bat zela zioten eta bide okerretik bideratua omen zegoen. Hala ere, begiko zuen aspalditik eta etxez etxe erronda egiten zuen bakoitzean Gesalagara iristeko irrikitan egoten zen Martinarekin izango zuen funtsik gabeko hizketaldiengatik.

Nievesi hasieran kezka zena amorru bihurtu zitzaion, bera lanean usteltzen zegoen bitartean, Martina bizitzaz gozatzen ari baitzen.

Hurrengo jaietan, mezatara joan zenean, Martinari buruzko zurrumurru ugari entzun zituen, zurrutari gehiegi ematen ziola... , inguruko gizon guztiekin egiten zuela larrutan... eta Gesalaga ekintza lizunaren leku zela ere entzun zuen. Denek esaten zuten aitaren alabak hezteko ahalegina alferrikakoa izan zela, basati eta zantarrak baitziren biak ala biak.

Nievesek ezin zion gorrotoari eutsi. Lotsaren lotsaz, etxerako bidea hartu zuen. Abiatu baino lehen, Martina tabernan zegoen begiratu zuen lehenago. Harritzekoa, bertan zegoen txikitoa eskuan, tabernan zeuden laurogei urteko aitona guztiak bezalaxe. Besotik gogor heldu eta arrastaka eraman zuen baserriraino.

Martina kexuka hasi zen minez, Nievesi leporatuz beti izan zuela harenganako inbidia, haserre, bera izateko desiotik zetorrela eta ez zela bere errua neska zahar izaten bukatzea, bere jarrera handiuste, itxi eta berekoiagatik baizik.

Nievesek ezin zuen gehiago jasan, berekoia bera? Lan eta lan aritua zen baserria aurrera eraman ahal izateko, Martina gibelhaundi bat izaten ari zen bitartean. Zorriak baino okerragoa zela esan zion, inguruko guztiei odola xurgatuz. Puta zikin alaena!

Borrokan hasi ziren biak.

PROSA

Joxek, harrituta, atea jo zuen. Inork ez zuen erantzun. Atea zabalik zegoen.

Guda zirudien, urteetan gordetako bekaizkeria eta errezeloak azaleratzeak geldiezina zirudien, Nievesek sukaldeko mahaitik labana hartu zuen arte.

Tabako eta ekonomatoko alkohol merkea usain zitezkeen kanpotik. Sartu eta Martina aurkitu zuen odolez inguratuta, hilotz.

Zeinen erraz igaro dezakeen burni zorrotzak azala, ur gazitan ez baita belar txarrez gain ezer hazten.